

LAN HARREMAN ETA GIZARTE LANGINTZA FAKULTATEA

BABES KOLEKTIBO ETA INDIBIDUALEKO OINARRIZKO NEURRIAK

COVID-19REN PREBENTZIORAKO FAKULTATEAN

1. Babes kolektiboko neurriak

- Neurri txikiko komunen erabilerari dagokionez, espazio hori banaka erabili beharko da. Zain egonez gero, okupatuta egoteagatik, atetik 1,5 metroko distantzia gordeko da bertara sartzeko.
- Igogailuaren banakako erabilera, ibilbide bakoitzeko, mugikortasun urriko pertsonen lehentasun osoarekin.
- Erabilera komuneko ate eta teklatuak irekitzeko mekanismoen manipulazioa saihestea eta Fakultateko gela eta espazio itxietan elikagaien manipulazioa eta kontsumoa saihestea.
- Fakultateko espazio komunetan eta fakultatearen kanpoaldean, ahalegina egingo da pilaketak saihesteko eta une oro gutxienez 1,5 metroko distantziari eusteko.

2. Norbera babesteko neurriak

- Maskara nahitaez erabiltzea.
- Egunero, fakultatera joaten diren pertsona guztiek, aldezturik, beren etxeetan aztertu beharko dute beren burua, honako sintoma hauetako bat dutela egiaztatuz: sukarra >37°C, eztul lehorra, eztarriko mina, arnasa hartzeko zailtasuna, usaimena galtzea eta dastamena. Hala bada, ez dute zentrorra joan beharko. Era berean, sintomak eskola-orduetan agertzen badira, berehala irten beharko dute zentrotik, beste pertsona batzuekin harremanetan jartzea saihestuz. Ohiko lehen mailako arretako zentroari eman beharko zaio abisua, telefonoz edo posta elektronikoz.
- Higiene pertsonaleko neurriak indartzea:
 - Urarekin eta xaboiarekin edo soluzio hidroalkoholikoekin eskuak garbitzea.
 - Eztul edo doministiku egitean, estali ahoa eta sudurra ukondoa tolestuta.
 - Ez ukitu begiak, sudurra eta ahoa.
 - Ile luzea izanez gero, behar bezala jaso (koleteroa, mototsa, etab.).
 - Azazkal laburrak eraman. Ez erabili eraztunik, eskumuturrekorik edo erlojurik.
 - Erabili eta botatzeko zapiak erabiltzea. Erabili ondoren, edukiontzi edo paperontzi espezifikotik uztea.
 - kontaktu fisikoa eragiten duten hezkuntza- edo afektu-adierazpenak ez egitea.
 - Erabilera komuneko elementuak, botoiak, heldulekuak, eskudelak ukitzea saihestea. Beharrezkoa denean, higiene-neurriak aplikatzea.